



Bizkaia aurrera!

*Koronobirusaren krisiaren ondoren,
**lurraldea suspertzeko
premiatzko plana***

Orain Bizkaia

Koronabirusak duela hilabete batzuk imajinatu ezin ziren ondorio sozial eta ekonomikoak dituen krisi berri bat sortu du, eta eragin hori oraindik zehazteke dago. Osasun-krisiak lurraldearen eta erakundearen lehentasuna izaten jarraitzen duen arren, kolpearen ostean altxatu egin behar da.

Bizkaia altxatzea tokatzen da. Normaltasuna berreskuratu behar da; izan ere, etorkizuneko normaltasun horrek, ezagutzen genuenarekiko ezberdina izan arren, normaltasuna izaten jarraituko du, eta zaindu beharreko balioa izaten jarraituko du; lurraldea, gizarte, jarduera ekonomikoa eta ongizatea eta bizi-kalitatea krisi honen aurreko mailetara itzuli behar dira, eta udalekin eta gainerako erakundeekin indarrak batuz egin behar da. **Orain Bizkaia.**

Bizkaiko Foru Aldundiak, lurraldeko lehen erakunde legez duen erantzukizunaren jakitun, lurraldea susper-

tzeko premiazko plan bat diseinatu du, **Bizkaia aurrera!**, normaltasunera ahalik eta lasterren itzul dadin laguntzeko eta suspertzeko. Ekimen arin eta praktikoen ardatza krisia gehien pairatu duten pertsonak eta sektoreak dira, alarma-egoerak iraun bitartean itxita egon diren guztiak, eta orain arte kolektiborik ahulenak babesteko hartutako neurriak osatzen ditu, bereziki adinakoak eta baztertuta daudenak, azken horiek Bizkaiko gizarte-sistemaren babesa izaten jarraituko baitute.

Laguntzeko, dirua sartu behar da, eta dirua sartzeko, lagundu egin behar da. Bizkaiko Foru Aldundiaren kalkuluen arabera, plan honetan inbertitutako euro bakoitzeko zazpi euroko eragina lortuko da. Diru-kutxa publikoarentzat 95,5 milioiko gehieneko kostutik (planaren zuzeneko inbertsioaren eta zerga-arintzeen artean), 672 milioiko eragin ekonomikoa sortzea espero da. Gainera,

krisiaren lehen astean premia hartutako zergen eta tributuen arloko neurriek 538 milioiko likidezia injeztatu dute Bizkaiko ekonomian. Guztira, erabaki horiek 1.210 milioi euro mugiaraziko dituzte lurraldeko eskualde guztietan datozen zortzi hilabeteetan.

Plana konfinamendua altxatzen den egun berean aktibatuko da, eta, era berean, planak Bizkaiko gizarte osoak 2020ko abenduaren 31ra arte bertatik tiratuko soka izan nahi du. Bizkaiko gizonak eta emakumeak dira aktibo baliotsuenak suspertze horretan. Nahitaezkoak, ezinbestekoak dira. Inor ezin da atzean geratu. Inor ere ez. Berriz ere, ezberdinak garela erakutsi behar dugu. Bagara edo ez gara? Orain inoiz baino gehiago bat izan behar dugu, denok batera egon, lepoz lepo, ukondoa ukondoarekin.

Orain Bizkaia. Bizkaia aurrera!

Unai Rementeria Maiz
Bizkaiko Ahaldun Nagusia

Enpleguan eta ekonomian kalteak eragin dituen osasun-krisia

Biztanleria konfinatzeak eta jardueraren zati handi bat geldiarazteak eragin handia izan du ekonomian eta enpleguan. Lehen datuen arabera, % 8,66 igo da martxoan erregistratutako langabezia-egoera, 2020ko otsailarekin alderatuta. Guztira, 72.668 pertsona, hau da, 2019ko martxoan erregistratutakoak baino 5.373 pertsona gehiago.

Erregistratutako langabeziari buruzko datu horrek lotura zuzena izan behar du martxoan eta apirilako lehen


bi asteetan Bizkaian aurkeztutako ERTE edo AEEEekin (Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak): 12.681 AEEE; horietatik 12.143 (% 96) ezinbesteko kasu legez aurkeztu ziren. Gehienak, jarduera aldi baterako eteteko arauketa-motari jarraituz. Aldi baterako etendurako AEEE zehatz horiek guztira 64.044 langileri eragiten diete Bizkaian, 2020ko apirilaren 15eko datuen arabera. Aldi horretan aurkeztutako gainerako espedienteak honela banatzen dira: 1.104 murrizke-

ta-espediente (% 8,7), 16.191 pertsonari eragiten dietenak, eta 35 iraungitze-espediente (% 0,2), 469ri eragiten dietenak. Bizkaian, apirilaren 15ean, 80.796 pertsona dira erregulazio-espediente baten eraginpean daudenak.

Helburua, zaila bezain beharrezkoa, gehien kaltetutako sektoreetako AEEEak langabezia bihurtzea ekiditea eta lana galdu duten pertsonak lan-merkatura lehenbailehen itzularaztea da.

Premiarik handiena dutenei laguntzeko plana

Suspertze edo berraktibatzekeo premiazko plan honek sailek eskuragarri zituzten 12 milioi berbideratzen ditu, eta aparteko 30 milioi euro gehitzen ditu koronabirusaren krisia okerren igarotzen ari diren pertsoneri eta sektore ekonomikoei laguntzeko:



Martxoaren 14ko alarma-egoeraren deklarazioaren edo adierazpenaren ondorioz negozioak eta jarduera ixtera behartuta egon diren Bizkaiko **15.343 langile autonomoak** eta lanean jarraitu duten baina kalte handi-handiak izan dituzten 22.764 langileak.



Koroabirusaren krisiaren ondorioz **lana galdu duten** 5.373 pertsonak.



Alarma-egoeraren adierazpenaren ondoren atearak eta pertsiak itxi behar izan dituzten lurraldeko 3.347 **mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak** eta kaltetutako 6.607 gehiago.

Kolektibo bakoitzerako neurri zehatzak

Bizkaia aurrera! Planak **12 neurri** ekonomiko biltzen ditu, pertsona, enpresa eta sektore horiei guztiei une hau gainditzen eta jarduera berreskuratzen laguntzeko.



1. **Autonomoei eta empresa txikiei laguntzeko mikrokredituak** (15M€)
2. **Enplegu-plan berezia** (5M€)
3. **Kontsumoa sustatzeko bonoak** (5M€)
4. **Renove Etxea Plana**
5. **Maileguen gabeziarako laguntza-programa** (150.000 €)
6. **Barneko turismo-plana** (300.000 €)
7. **Ekonomia suspertzeko zuzeneko laguntzen programa** (4M€)
8. **Bizkaia aurrera! digitalizazio-plana** (10.4M€)
9. **Zerga- eta tributu-neurriak**
10. **Mezenasgoa handitzea kulturaren, kirolean, eta ikerkuntzan**
11. **Bizkaian jarduera, ekonomia, kultura eta aisialdia dinamizatzen dituzten jarduerak** (2.1M€)
12. **Bizkaia Gara indartzea** (50.000 €)

1

Bizkaiko autonomoei eta besteren konturako bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiei laguntzeko **mikrokredituak**. (15M€)

- 7.500 euro arteko maileguak, interesik, komisiorik eta abalik gabe.
- Gehienez ere bost urtean itzultzeko eta urtebeteko gabealdiarekin.
- Bizkaiko autonomo eta besteren konturako bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikientzat.
- Merkataritza, ekoizpena eta antolaketa suspertzearekin lotutako gastuak ordaintzeko mikrokredituak, baina ez zorra birfinantzatzeko, ezta pasiboa berregituratzeko ere.

2

Lanpostuei eusten laguntzeko eta langabezian dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko **enplegu-plan berezia**. (5M€)

- Manten programa, hamar langile arteko 25.000 enpresa baino gehiagori zuzendua, enpleguari eusten laguntzeko, 2.500 eta 3.500 euro bitarteko zuzeneko laguntzen bidez.
- Kontrata programa, langileak behar dituzten baina jarduera faltagatik gaitasun ekonomikorik ez duten ehun langile arteko enpresetan pertsonak kontratatzen laguntzeko.
- 3R programa, lanpostua galdu duten pertsonak, prestakuntza egoki baten bidez eta sei hilabete baino gutxiagoko epean, krisiaren aurretik lan egiten zuten sektorea ez den beste sektore batean birkokatu daitezkeenak, berrorientatzeko, birkualifikatzeko eta birkokatzekoa. Behargintzaren sarearen bidez eta lurraldeko enpresa-elkarte nagusien lankidetzarekin artikulatuta.
- Enplegua sortzeagatiko kenkari fiskala 5.000 eurotik 7.500 eurora igotzea, LGSren % 150 baino gehiagoko soldatari lotuta.

3

Bizkaiko tokiko merkataritza, kultura, turismo-establezimenduetan eta ostalaritzan **kontsumoa sustatzeko bonoak**. (5M€)

- Bizkaiko tokiko merkataritza, kultura barne, hamar langile baino gutxiagoko kontsumoa sustatzeko bonoen programa.
- Turismo- eta ostalaritza-establezimenduetan (hotelak, nekazaritza-turismoak, landetxeak, xarma duten hotelak, aterpetxeak...) kontsumoa sustatzeko bonoen programa.

4

Renove Etxea Plana, Bizkaiko eraikuntzako gremioen artean jarduera sustatzeko.

- % 10eko kenkari fiskal iragankorra, Bizkaian bizi diren pertsonen ohiko etxebizitza eraberritzeagatik, bakoitzari dagokion udal lizentzia sartuta.
- Gutxienez 3.000 euroko eta gehienez 15.000 euroko aurrekontua duten eraberritzeetarako kenkaria (1.500 euroko gehieneko kenkaria).
- Hamar urtetik gorako antzinatasuna duten ohiko etxebizitzetarako.

5

Elkargik abalaturako enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen **maileguen gabeziarako laguntza-programa**. (150.000 €)

- Elkargik bermatutako maileguen 50.000.000 euro birfinantzatzeko laguntzak.
- Sei edo hamabi hilabeteko gabealdia eskatzeko aukera, printzipalaren ziozko zenbatekoa itzuli gabe.
- Ordaindu gabeko kapitalaren % 0,3ko komisioa ordaintzeko ekarpena.

6

Bizkaiko herrietan mugimendua, jarduera, kultura eta kontsumoa sustatzeko **barneko turismo-plana**. (300.000 €)

- Proposamen iradokitzaileak, Bizkaiko eskualde guztietan erosteko eta goatzeko errazak, dituzten ia ehun plan bultzatzea.
- Web-plataforma baten bidez sustatzea eta merkaturatzea.
- Koronabirusaren krisiak eragindako konfinamenduaren ondoren, familian, hurrekin, bikotean edo taldean goatzeko plan idealak.
- Proposamen tematikoak: kultura, gastronomia eta tokiko produktua, azokak, kirola, natura/paisaia, ekitaldiak, etab.

7

Industriari lotutako sektoreetako enpresa txiki eta ertainen eta bost eta ehun langile arteko enpresen **ekonomia suspertzeko zuzeneko laguntzen programa**. (4M€)

- Enpresaren suspertze ekonomikoa eta komertziala merkataritza-orientazio argiko epe laburreko ekintzen bidez bultzatzea helburu duten proiektuei laguntzea.
- Merkataritza suspertzeko ekintza horietarako beharrezkoak diren ekoizpen- eta antolaketa-hobekuntzak ere bultzatuko dira.
- Lehenetsuna emango zaie digitalizazioarekin, ekonomia zirkularrarekin eta ingurumenaren gaineko eraginaren murrizketarekin lotutako proiektuei.
- Langileen barne-gastuak, kanpo-gastuak eta ibilgetu materialeko inbertsioak lagunduko dira diruz, % 50eko laguntzak eskainiz, 15.000 euroko mugarekin.

8

Bizkaia aurrera! **digitalizazio-plana**. (10.4M€)

- Inbertsio produktiboko premiazko programa, banda zabala Bizkaiko eskualde guztietara zabaltzeko.
- Bizkaiko tokiko merkataritza eta trebetasun digitalen arloko prestakuntza sustatzeko plataforma digitala.
- Haustura digitala ekiditeko, adinekoek edo baliabide gutxiko etxe edo familiek teknologia berrietara sartzeko programa.
- Banku nagusiekin batera egindako programa, Bizkaiko ostalaritzan eta tokiko merkataritzan baliabide digitalen bidezko ordainketa bultzatzeko.

9

Ekonomia eta enplegua suspertzea errazteko **zerga- eta tributu-neurriak**.

- BEZ, SZ eta PFEZren itzulketen gehieneko arintzea.
- Langileak kontratatzekeo pizgarri fiskalak. Enplegua sortzeagatiko kenkaria% 50 handitzea, bai modalitate orokorrean, kenkari orokorraren zenbatekoa 5.000 eurotik 7.500 eurora igarota, bai laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboen kasuan, zenbatekoa bikoiztuta. Kalitatezko enpleguari lotuta mantentzen da, 19.950 eurotan ezarrita.
- Digitalizazio-prozesuetarako zerga-pizgarriak. Gehienez ere % 10eko desgrabazioa, eta gehienez 3.000 euro urtean, Bizkaiko Foru Aldundiaren digitalizazio planaren baitako gastu eta inbertsioetarako.
- Enpresen arteko topaketarako plataforma digital bat aktibatzea, 64 bis sistemaren potentzial guztia aprobetxatzeko.
- 2019ko SZren kuotaren % 60a bere fakturazio eta errendimendua txikiagotu duten enpresek bizkortze ekonomikoa sustatzera bideratzea ahalbidetzea, 2020ko galerak konpentsatzeko, enplegua sortzeko, aktibo produktiboetan inbertitzeko, I+G egiteko, 64.bis artikuluko proiektuak finantzatzeko edo ekintzailtzan inbertitzeko.

10

Kultura, kirol eta Covid-19ren ikerketa-jardueretarako **mezenasgoa handitzea**, eta 2020an haiek lehentasunezko jarduerak izendatzea.

- Kulturaren sektoreko elkarteei egindako ekarpenen lehentasunezko izaera.
- Lehentasunezko izaera kirol-federazioei egindako ekarpenetarako, ekarpen horiek baitira kirol amateurra jasaten dutenak, salbuespen gisa, kenkariaren barruan 2020an federazio horiei ordaindutako kuoten % 25 sartuz.
- Lehentasunezko izaera Covid-19aren ikerketarako eta ikerketan aritzen diren erakundeentzat.

11

Bizkaian jarduera, ekonomia, kultura eta aisialdia dinamizatzen dituzten **jarduerak bultzatzea** osasun-agintaritzak baimentzen baditu. (2.1M€)

- Ekintzailtza eta jarduera ekonomikoa sustatzeko ekitaldiak.
 - Techstars Startup Week
 - South Summit Biscay
 - Biscay Startup Campus
 - ESG Biscay Global Summit
 - Sarekin sareko ekintzailtzaeren astea
- Musika-, kultura-, kirol- eta aisialdi-jarduerak, betiere osasun-agintaritzak baimentzen baditu.
 - Bizkaia aurrera! kontzertu handia, Bizkaiko talderik onenekin, BECen.
 - Bizkaia Musik ON Getxo, publiko guztiarentzako musika jardunaldia, kaleko bidea berreskuratzeko eta Bizkaiko musika taldeak bultzatzeko.
- **Bizkaia Txapeldun!**, erakusketa ibiltaria Bizkaiko herrietan, txikiek konfinamenduan zehar idatzitako marrazki eta ipuinekin.
- **Bizkaia Eskola Kirola Festa**, txikiek elkar aurkitzeko eta konfinamenduaren ondoren kirolaz berriro gozatzeko aukera.
- **Kultura bideak**, Bizkaiko artistek aire zabaleko lanak sortzeko proposamena.

12

Bizkaia Gara, lurraldeko boluntarioen sarea, **indartzea**, eskatzen diren zeregin guztiak indartzeko eta laguntzeko. (50.000 €)

- Krisietan hasitako programak egonkortzea (elikagaiak/farmazia/deiak).
- Adinekoei denbora librean laguntzea. **Bizilagun**
- Adinekoen artean irakurketa sustatzeko programa. **Liburuak etxera**
- Kirola egiten eta bititza aktiboan laguntzeko programa. **Kirola alkarregaz**
- Larrialdietan eta ekitaldiak eta jarduerak antolatzen laguntzea.

1.210 milioi euro mugimenduan Bizkaiko ekonomian

Bizkaia aurrera! planak bultzada bat eman nahi dio Bizkaiari, pertsonak eta lurraldeak normaltasuna lehenbailehen berreskura dezaten. Ekonomikoki ondo hornitutako neurri gutxi biltzen ditu, alarma-egoeraren ondoren jarduera geldiarazteak gehien eragiten dien profesional eta sektoreetan ardaztuta, beste erakunde batzuen ekimenak osatzea eta ez bikoiztea du helburu, eta, batez ere, oreka-puntu zail batetik egiten du: Bizkaiari laguntzeko aparteko eta premiazko beharra, zerbitzu publikoei eusteko betebeharra, eta jarduera luzaroan eteteagatik esku-ragarri dauden baliabide publikoak nabarmen murriztea.

Laguntzeko, dirua sartu behar da, eta dirua sartzeko, lagundu egin behar da. Lema horrek gidatu nahi du gaur Bizkaian hazi bat erein nahi duen, bihar fruituak jasotzeko, Bizkaia aurrera! plana. Bizkaiko Foru Aldundiaren kalkuluen arabera, plan honetan inbertitutako euro bakoitzeko zazpi euroko eragina lortuko da ekonomiaren eraginean. Diru-kutxa publikoarentzat 95,5 milioiko gehieneko kostutik (planaren zuzeneko inbertsioaren eta zerga-arintzeen artean), 672 milioiko eragin ekonomikoa sortzea espero da.

Gainera, krisiaren lehen astean premiaz hartutako zergen eta zergen batezbestekoek 538 milioi likidezia injektatu dituzte Bizkaiko ekonomian, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta lurraldeko enpresa handien eskaera eta behar nagusia. Guztira, 1.210 milioi euro mobilizatuko dira lurraldeko eskualde guztietan datozen zortzi hilabeteetan, abian diren inbertsio emankorrek jada sortutakoak kontutan hartu gabe. Bizkaiko Foru Aldundiak premia-egoera honetan diru horrek guztion onurarako mugimendu eta jarduera ekonomikoa sortzeko egin ki-zuna bete dezan lehenetsi du.

		Bizkaiko autonomoak eta besteren konturako bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiak	Lanean jarraitu duten baina krisiaren eragina jasan duten autonomoak eta enpresa txikiak	Krisialdian lanik gabe geratu diren pertsonak	Ohiko jarduera berreskuratzeko laguntza behar duten enpresa txiki eta ertainak
1	7.500 euro arteko mikrokredituak, interesik, komisiorik eta abalik gabe, gehienez ere 5 urteko epean itzultzeko eta urte bateko gabealdiarekin	●			
2	Enpresa txiki eta ertainetako enpleguari eusteko, kontratazioa laguntzeko eta eskaera duten sektoreetan pertsonak birkalifikatu eta birkokatze enplegu-plan berezia	●	●	●	●
3	Bizkaiko tokiko merkataritzan, ostalaritzan, kulturen eta turismo-sektorean kontsumoa berpizteko bonoak	●	●		●
4	Bizkaiko eraikuntzako gremioen artean jarduera berpizteko Renove Etxea Plana	●	●	●	●
5	Elkargik abalaturako enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen maileguen gabeziarako laguntzen programa	●	●		●
6	Bizkaiko herrietan mugimendua, jarduera eta kontsumoa sustatzeko barneko turismo plana	●	●		●
7	Enpresa txiki eta ertainen eta enpresen suspertze ekonomiko adimendunerako zuzeneko laguntzen programa				●
8	Banda zabala Bizkaiko eskualde guztietara zabaltzea	●	●		●
8	Bizkaiko tokiko merkataritza eta prestakuntza digitala bultzatzeko merkataritza digitaleko Plataforma	●	●		●
8	Tokiko merkataritzan eta ostalaritzan baliabide digitalen bidez, komisiorik gabe, ordaintzea bultzatzeko programa	●	●		●
9	Pertsonak kontratatze pizgarri fiskalak	●	●	●	●
9	BEZaren eta PFEZaren itzulketen gehieneko arintzea	●	●		●
9	Digitalizazio-prozesuetarako pizgarri fiskalak	●	●		●
9	SZren %60a lehenetsutako jarduerak bultzatzeko kreditu fiskal bihurtzea				●
9	Enpresen arteko topaketarako plataforma digital bat aktibatzea, 64 bis artikulua potentziala aprobetxatzeko				●
10	Kultur, kirol eta Covid-19aren inguruko ikerketa-jardueretarako mezenasgoa areagotzea	●	●		●
11	Bizkaian jarduera, ekonomia, aisialdia eta kultura dinamizatuko dituzten ekitaldiak bultzatzea	●	●	●	●
12	Bizkaia Gara boluntarioen sarea indartzea eta laguntza-proiektu berriak bultzatzea	●	●	●	●

 ***Bizkaia aurrera!***

www.bizkaia.eus/bizkaiaaurrera